



**LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

ZEHARKAKO MODULUA

ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO

Enpresa eta Ekimen Sortzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

ZEHARKAKO MODULUA

ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO

Enpresa eta Ekimen Sortzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1.a, 2008ko abendua

Ale-kopurua: 600 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Sergio San Martín Pinedo, Fernando Tamés Urdiain eta Ramón Ugarte Lilly

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: BI-1232/09

Iraupena: 60 ordu
UDen kopurua: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzeraz eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	03. or.
0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	04. or.
1. unitate didaktikoa: Gizartearen baitan ekintzailtza baloratzea	07. or.
2. unitate didaktikoa: Enpresa-idea eta horren ondorio sozialak zehaztea	10. or.
3. unitate didaktikoa: Enpresa-proiektua garatzea	13. or.
4. unitate didaktikoa: Enpresa	16. or.
5. unitate didaktikoa: Enpresa-jarduera diseinatzea	18. or.
6. unitate didaktikoa: Ekonomia- eta finantza-azterketa	22. or.
7. unitate didaktikoa: Finantza-planaren osagaiak	25. or.
8. unitate didaktikoa: Betebehar administratiboak	28. or.

Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK				UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4		
				UD0: Moduluaren aurkezpena	1 ordu
x				UD1: Gizartearen baitan ekintzailtza baloratzea	8 ordu
	x			UD2: Enpresa-idea eta horren ondorio sozialak zehaztea	6 ordu
	x			UD3: Enpresa-proiektua garatzea	12 ordu
		x		UD4: Enpresa	3 ordu
		x		UD5: Enpresa-jarduera diseinatzea	13 ordu
		x	x	UD6: Ekonomia- eta finantza-azterketa	8 ordu
			x	UD7: Finantza-planaren osagaiak	5 ordu
			x	UD8: Betebehar administratiboak	4 ordu
GUZTIRA					60 ordu

1. multzoa: Ekimen sortzailea
2. multzoa: Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena
3. multzoa: Enpresa bat sortu eta abiaraztea
4. multzoa: Administrazio-funtzioa

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu			
<p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 				

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			lr.	lk.				
I1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nor bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.	
I2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arbela. ▪ Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. ▪ Kronogramak. ▪ Informazioa duten fotokopiak. 	
I3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiaz edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, bane-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.	
I4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.	



OHARRAK

- Nahikoa izango da I1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- I4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa banean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (I) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (In-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. I-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: GIZARTEAREN BAITAN EKINTZAILETZA BALORATZEA		Iraupena: 8 ordu			
<p>IE1: Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak aintzat hartu eta baloratzea. 2. Lana bilatzeko edo autoenplegurako estrategia pertsonalen inguruko erabakiak hartzean, sormenez, ekimenez eta espiritu sortzailez jardutea. 3. Gazteen enpresa-ekimena bultzatzen laguntzen duten faktoreak ulertzea. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera ekonomikoan berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). • Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. • Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea. 	x			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. • Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. • Enpresaburuaren kontzeptua. Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. • Ekintzaileen arteko lankidetzak. • Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. • Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. • Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatutako gisa. • Kultura ekintzaileari lotutako ohitura egokiak tituluar dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan. 	x			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. • Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea. 	x			

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
11. Berritzaileak izan diren gertaeren edo jardunen zerrenda bat egitea.	1	1 o	x	x	Ikaslea, bere bizipenetan eta esperientzietan oinarrituta, interesgarriak iruditzen zaizkion ideia berritzaileak adierazten joango da. Horiek arbelean jasoko dira, ondoren aztertzeke.	Gizateriaren garapenaren oinarritzko elementu gisa, enpresa-berrikuntzaren beharrari buruz pentsamolde komuna sortzeko. Era berean, espirtu ekintzailea jarrera eta nolakotasun pertsonalekin lotuta dagoela jabetu daitezten saiatu behar da.	Idea jasa. Fitxa txikiak eta zerrenda arbelean.	
12. Ikasle guztien artean, interesgarriak diruditen negozio-ideiekin zerrenda bat egitea eta arbelean idaztea.	1	1 o		x	Ikaslea, bere ezagupenetan eta esperientzian oinarrituta, interesgarriak iruditzen zaizkion negozio-ideiak adierazten joango da, eta ideia horiek arbelean jasoko dira, ondoren aztertzeke.	Enpresa bat sortzeko aukeraren inguruan pentsamolde komuna sortzeko.	Fitxa txikiak eta zerrenda arbelean. Idea jasa.	
13. Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea, eta horietako bakoitzak proiektu baten arrakastan duen eraginari buruz gogoeta egitea.	1-3	1 o	x	x	Irakasleak I1 eta I2 jardueretan lortutako faktoreen ezaugarriei eta garrantziari buruzko azalpen bat egingo du. Ikasleekin batera, aipatutako faktoreen inguruan haiek egindako balorazioa egiaztatuko du.	Ikaslea jabetu dadin ekintzaileek jarrera eta gaitasun jakin batzuk izan behar dituztela, eta horien eragina eta osaera aldakorra dela.	Testu-liburua eta/edo apunteak. Azaldutakoa argitu eta laburtuko duten adibideak eta taulak erabiliko dira.	
14. Ikasleen iritzi, lanbidearen jardunean gaitasun berritzaileak eta ekintzaileak bildu eta abian jarri dituen iraganeko eta egungo pertsona ospetsu bat hautatzea.	1-3	1 o		x	Ikaslea, bere ezagupenetan eta esperientzian oinarrituta, izen horiek adierazten eta hautatzen joango da. Datuak fitxetan jasoko dira. Fitxa horietan, pertsona ospetsuen izenak, lanbideak eta haiek hautatzearen arrazoiak adieraziko dira.	Ikaslea ohartu dadin pertsona horiek gizateriaren aurrerabidean egin duten ekarpenaz.	Fitxa txikiak eta zerrenda arbelean. Idea jasa.	

15. Bere garaian, lanbide-jarduera garatzeko beren kontura lan egitea aukeratu zuten familia-inguruneko pertsonen izenak jasotzea. Gauza bera egingo da lagunen inguruneari dagokionez.	1	1 o.		x	Ikaslea, bere ezagupenetan eta esperientzian oinarrituta, izen horiek adierazten eta hautatzen joango da. Haien funtsezko faktoreekin fitxa bat beteko du. Ikasleak ahaidetasunak eta jarduerak jasoko ditu. Izan duen harreman gutxi-asko zuzena bistaratuko du.	Ikaslea ohartu dadin bere inguruneko pertsonak izandako bizimodu ekintzaileaz. Horrek bere iritzien jatorriari buruz gogoeta egiten lagundu dezakeen ikusteko.	Fitxa txikiak eta zerrenda arbelean.
16. Norberaren abilezia eta gaitasun ekintzaileak diagnostikatzea.	1-2-3	1 o.		x	Ikasleak test bat egingo du. Ondoren, informazioa gainerako taldekideei jakinaraziko die. Testa berorrek zuzenduko du. Bere gaitasun pertsonalaren gune sendoekin eta ahulguneekin grafiko bat egingo du.	Ikasleak bere baitan gaitasun pertsonalak ezagutu ditzan.	Gaitasun ekintzaileei buruzko ebaluazio-testa. Hura zuzentzeko eta lortutako puntuekin grafiko bat egin ahal izateko eredia. Gune sendoak eta ahulguneak.
17-E1. Irudizko bezero bat aholkatzea enpresa bat sortzeko ideia garatzeko.	2	2 o.		x	Ikasleek, taldetan banatuta, lortutako ezagupenak erabiliz, 12 jardueraren emaitzazko ideiak aztertuko dituzte. Taldeen bateratze-lana egingo da.	Ikasleak ordura arte lortutako ezagupen teorikoak frogatu ditzan.	Ikasgela taldean lan egiteko prestatuko da. Jarduera erraztuko duten eskemak, laburpenak eta taulak erabiliko dira. Ideia aztertzeko, AMIA metodoa erabiliko da.

OHARRAK

- Ikaskuntzaren helburuak erdi-mailako zikloetarako eta goi-mailako zikloetarako berberak badira ere, irakasleak kontuan hartu beharko du egindako programazioa zein talderi zuzenduta dagoen, edukiak neurri batean edo bestean moldatu eta sakontzeko, eta jarduerak egokitzeko. Era berean, garrantzitsua izango da, erdi-mailako ziklo batean edo goi-mailako batean gauden kontuan izanda, hizkera teknikoagoa edo ez hain teknikoa erabiltzea.
- Irakatsi beharreko ezagupenak laburtu egingo dira, eta negozio txikietan azkar aplikatzeko garrantzitsuenak besterik ez dira azpimarratuko.
- Exijentzia mailakakoa izango da, eta aurrera egin ahala sakontzeko aukerak erakutsiko dira.



2. unitate didaktikoa: ENPRESA IDEIA ETA HORREN ONDORIO SOZIALAK ZEHAZTEA		Iraupena: 6 ordu			
<p>IE2: Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresari eragiten dioten gizarte- eta ingurumen-politiketan dauden betebeharrak ezagutzea. 2. XXI. mendeko enpresa baten gizarte-aupadak baloratu eta bere gain hartzea. 3. Enpresa-idea zehaztea. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. 		x		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). • Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. • Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. 		x		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Balantze soziala aintzat hartzea. • Genero-berdintasuna errespetatzea. • Enpresa-etika baloratzea. 		x		

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
I1. Berdintasunaren, iraunkortasunaren eta gizarte-erantzukizunaren arloetan egungo gizarteak dituen aupadak azaltzea.	1-2	0,5 o..	x		Irakasleak berdintasunaren eta iraunkortasunaren arloetan dagoen legeria azalduko du, bai eta gizarte-erantzukizunaren eta kontziliazioaren esparruetan (zentzurik zabalenean) nazioarteko foroetan hartutako eta lurralde-administrazioek abian jarritako erabakiak eta gomendioak ere.	Ikasleak uler dezan enpresaburuak eta horren proiektuak etika jakin bati jarraitu behar diotela, eta etika horrek jarduera garatzen deneko gizartea hobetzen lagundu behar duela.	Power Point-eko aurkezpenak, jarduera ulertzen lagunduko duten eskemekin, laburpenekin eta grafikoekin.
I2-E1. Enpresa bat eratzeko garaian, gizartearen eta iraunkortasunaren arloetan kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak zehaztea.	1-2	1 o.	x	x	Ikasleak, irakasleak gidatuta, banakako gogoeta egingo du (idatziz adieraziko da eta ebaluagarria izango da), enpresa bat sortzeko garaian arlo horietan kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenen inguruan. Ondoren, irakasleak bateratze-lana egingo du ideia guztiekin, eta ikasleen artean gaiaren inguruko eztabaida piztuko du.	Ikasleak ezagupenak, sentimenduak eta balioak ager ditzan, ondorengo lana erraztuko duten lan-taldeak sortu ahal izateko (eratu beharreko enpresako bazkideak).	Ikasgelako berezko baliabideak: Arbela. Talde-teknikak lantzeko materiala (post-it, etab.).
I3. Ziklo honi dagokion lanbide-arloko enpresetan balio etikoak eta sozialak gaineratuko dituzten praktikak identifikatzea.	1-2	1,5 o.		x	Egindako taldeetan, ikaslea praktika horien eredu diren enpresen inguruko ikerketa egingo du, dagokion zikloarekin lotutako enpresetan arreta berezia jarrita, adierazitako baliabideen bitartez. Irakasleak baliabide horiek lortzen lagundu behar du.	Ikaslea jabetu dadin aipatutako alderdiak egokiro garatzen laguntzeak enpresan/lanbidean arrakasta lortzearekin duen loturaz.	Ikasleak zenbait baliabide erabil ditzake, hala nola, Internet, aldizkariak, prentsa ekonomikoa, enpresa-buletinak, etab.



14. Zenbait negozio-ideia zehaztea, lehenetsunez, ziklo honi dagokion lanbide-arloarekin lotutakoak.	3	2 o.		x	Talde bakoitzak 5 enpresa-ideia baino gehiago ekarri beharko ditu (horietatik gutxienez 3k dagokion ziklokoak izan behar dute), eztabaida orokor batean. Eztabaida horretan, hautaketaren arrazoiak azalduko dira, bai eta ideia horiek merkatuaren beharrei nola erantzun diezaiaketen ere.	Talde guztiek gogoeta egin dezaten euren eta gainerako enpresen ideien inguruan eta, horrela, behar bezala baloratzeko gai izan daitezkeen azkenean zein ideia garatu beharko duten eta nola gainerako enpresen ekarpenek norberaren pentsamendua aberastu dezaketen.	Ikasleak zenbait baliabide erabil ditzake, hala nola, Internet, aldizkariak, prentsa ekonomikoa, etab.
15. Talde bakoitzak negozio-ideia hautatzea.	3	1 o.		x	Aurreko gogoetaren ondoren, talde guztiek enpresa-ideia bat hautatu beharko dute eta, gainerako enpresen aurrean, hautaketaren arrazoiak defendatu beharko dituzte.	Ikasleak barneratu egin behar du erabaki bat hartzeak duen garrantzia, eta nola gogoeta egokiak horretan lagundu dezakeen.	Ikasgelako berezko baliabideak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako alderdiak, gaur egun hain garrantzitsuak izanik ere, gai astunak izan daitezke, batez ere erdi-mailako zikloetan. Beraz, garrantzitsua da irakasleak egin beharreko azalpen guztiek gaia ulergarri izatea eta ikaslearen arreta erakartzea erraztuko duten baliabideen euskarria izan behar dutela kontuan hartzea. Ekintzaile potentzialen aurrean gaudela kontuan hartuta, funtsezkoa da ulertaraztea arrakasta profesionalak ez duela esan nahi arrakasta pertsonala, eta ezinbestekoa dela geure burua garatzen dugun ingurunearen oreka lortzea. 							



3. unitate didaktikoa: ENPRESA PROIEKTUA GARATZEA

Iraupena: 12 ordu

IE2: Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzeko eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Enpresa-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egitea.
2. Negozio-eredua AMIA azterketaren arabera ezartzea.
3. Enpresa-ideiaren gainean berrikuntza-lanak egitea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. • Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea. • Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea. • Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta homitzaileak. • Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. • Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. • Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea. 		x		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • AMIA azterketa-metodoa. • Berrikuntza: kontzeptua eta oinarriak. Enpresa-ideiatik bertatik abiatuta berritzea. 		x		
JARRERAZKOAK					

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
I1. Hautatutako enpresa-ideiarekin zerikusia duten enpresak ikertzea.	1	2 o.	x	x	Irakasleak ikerketa zuzenduko du. Horretarako, beharrezko baliabideak jarriko ditu talde bakoitzak datu garrantzitsuak lortu ahal izan ditzan, besteak beste: fakturazioa, produktu-lerroa, langile kopurua, inbertsioak, ustiapen-maila, salmenten segmentazioa, mozkinak, etab. Talde guztien lana amaitu ondoren, haiek jarraitutako metodoak eta lortutako emaitza azalduko dizkie gainerakoei.	Bi helburu ditu: batetik, sartu nahi duteneko merkatuari buruzko benetako datuak ezagutzea; eta, bestetik, garatuko denaren inguruko informazioa edukitzearen garrantzia ulertzea, eta, norberaren ikerketa-iturriez gainera, beste iturri batzuk lortzea ezinbestekoa dela jabetzea.	Ikasleak zenbait baliabide erabil ditzake, hala nola, Internet, aldizkariak, prentsa ekonomikoa, enpresa-buletinak, etab.	
I2. Merkatu-azterketan kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko analisia egitea.	1	1 o.		x	Aurreko ikerketa egin ondoren, talde bakoitzak merkatu-azterketa egiteko garaian zein alderdi kontuan hartu behar dituen ikusi behar du, arreta berezia jarrita negozioaren dimentsioan (enpresaren kokapena, langile kopurua, profilak, produktu-lerroak, etab.). Gogoetaren ondoren, talde bakoitzak azalpen labur bat egingo du ikasgelan.	Azterketa hori baliagarria izango da sustatzaileek euren negozio-ideiaren inguruan dituzten asmoak zuzendu eta kokatzeko. Horrek ondoren egingo duten merkatu-azterketa bideratzen lagunduko die.	Ikasgelako berezko baliabideak.	
I3. Merkatu-azterlan baten alderdi garrantzitsuenei buruzko analisia: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.	1-2	3 o.		x	Talde bakoitzak bere negozio-ideiari buruzko merkatu-azterketa egingo du, aurreko analitika abiatuta. Horretarako, taldean lan egin eta eginkizunak banatu beharko ditu. Era berean, irakasleak informazioa kanpoan bila dadin (bisitaldi, telefono-dei eta abarren bidez) sustatu beharko du.	Merkatu-azterketari esker, ikasleak informazio zehatza lortu ahal izango du bere negozioa zuzen planteatzeko. Bestalde, taldean lan egiten eta, bere arrakastaren parte gisa, besteen lanean konfiantza izaten erakutsiko dio horrek.	Beharrezkoa da Internet, telefonoa eta faxa erabilteak, eta beste enpresa batzuekin biltzeko irtenaldiak egitea.	

I4-E1. AMIA matrizea sortzea.	1-2	3 o.		x	Talde bakoitzak egindako merkatu-azterketan lortutako datuak aztertu beharko ditu, eta taldekideek ados jarri beharko dute euren negozio-ideiaren ahuleziei, mehatxuei, indarrei eta aukerei buruz. Ondoren, informazioa lortzeko jarraitutako metodoak eta ateratako ondorioen zergatia azaldu beharko dizkiete gelako gainerako ikasleei.	Jarduera honen bidez, talde guztiak jabetuko dira euren enpresa-idea garatzeak dakartzan barruko eta kanpoko zailtasunez, eta zailtasun horiek gainditzeko nola jardun jakingo dute (garrantzitsua da gogoeta egokia egitea). Era berean, jarduera honek ikaslearen aurrerabidea ebaluatzeko balioko du.	Ikasgelako berezko baliabideak.
I5. Negozio-eredua planteatzea.	1-2	1 o.	x	x	Irakasleak sarrera bat egingo du 2. eta 3. unitate didaktikoetan landutako guztia laburtzeko. Unitate didaktiko honen aurreko jardueretan lortutako datuetatik abiatuta, talde guztiek barne-eztabaida egingo dute euren negozio-ereduak nolakoa izan behar duen aztertzeko. Horretarako, aurreko unitate didaktikoan alderdi etikoen eta ingurumenekoen inguruan landutako alderdi guztiak bilduko dituzte.	Jarduera hau egin ondoren, ikasleak identifikatuta izango du eratu beharreko enpresa mota; eta horrek abiapuntu gisa balioko du bideragarritasun-plana egiteko.	Ikasgelako berezko baliabideak.
I6. Ezarritako negozio-ereduari buruzko alderdi berritzaileak ekartzea.	3	1 o.	x	x	Negozio-eredua zehaztu ondoren, irakasleak galdera batzuk bota beharko ditu, planteatutako negozio-ereduen zenbait alderdiren inguruan zalantza sorrarazteko. Horren helburua da talde bakoitzaren baitan eztabaida piztea eta planteamendu horietan hobekuntzak sartzea. Amaitu ondoren, taldeak azken emaitzak gelako gainerako ikasleei aurkeztuko dizkie.	Ikaslearen pentsamoldean eta jardunbidean berritzeko gaitasuna finkatzen saiatzeko; lan-merkatuaren eta, oro har, bizitzaren aldaketetara egokitze gai diren pertsonen eta erakundeen elementu bereizgarri gisa.	Internet, aldizkariak, prentsa espezializatua, etab. erabiliko dira.



E2. Ebaluazio-proba bat egitea.		1 o.		Irakasleak proba bat planteatuko du. Bertan, 1., 2. eta 3. unitate didaktikoen edukiak jasoko dira.	Ikaslearen ezagutza-maila zein den jakiteko.	
OHARRAK						

4. unitate didaktikoa: ENPRESA							Iraupena: 3 ordu			
<p>IE3: Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresa baten oinarritzko eginkizunak ulertzea. 2. Enpresa baten ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatzea. 										
EDUKIAK							Multzoak			
							1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK										
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. • Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. • Enpresaren jabeek duten erantzukizuna. 								x	
JARRERAZKOAK									x	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			lr.	lk.						
I1. Enpresaren kontzeptuari buruzko sarrera, gizarte-bilakaerarako erantzunetik abiatuta.	1	1 o.	x	x	Irakaslea oinarritzko egoera batekin hasiko da. Egoera horrek bilakaeran zailtasun sozialak ditu (langileen mugimenduak, heziketa-beharrak, prestakuntza, emakumeak lanean sartzera, etab.). Horrek, aldi berean, erabakiak hartzera bultzatzen gaituzten galderak dakartza berekin. Taldean nahiz banaka eta ondoren bateratze-lana eginda gara daiteke.	Gizarte-eraikuntzaren oinarritzko elementu gisa, enpresa-antolamenduaren beharrari buruz pentsamolde komuna sortzeko.	Ezarritako helburuetarantz bideratuko duen fitxa.			



I2. Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak ezartzea.	1	1 o.	x		Irakaslea oinarrizko egoera batekin hasiko da. Egoera horrek bilakaeran barne-antolamenduko zailtasunak ditu (denbora-falta, lanaren banaketa, espezializazioa, etab.). Horrek, aldi berean, erabakiak hartzera bultzatzen gaituzten galderak dakartza berekin. Taldean nahiz banaka eta ondoren bateratze-lana eginda gara daiteke.	Laneko arlo espezializatuak sortuko dituen barne-antolamenduaren beharraz jabeazteko.	Ezarritako helburuetarantz bideratuko duen fitxa.
I3. Enpresa motak azaltzea, jabeen erantzukizunak azpimarratuta.	1-2	1 o.	x		Irakasleak azalpen bat egingo du enpresa moten inguruan; eta eredu bakoitzak zein abantaila eta eragozpen dituen, eta zein egoerei erantzuten dien adieraziko du.	Ikasleak uler dezan eredu bakoitzak enpresa-egoera jakin bati erantzuten diola.	Azaldutakoaren laburpen-eskema.
OHARRAK							



5. unitate didaktikoa: ENPRESA JARDUERA DISEINATZEA

Iraupena: 13 ordu

IE3: Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Marketin-plana egitea.
2. Merkataritza-plana egitea.
3. Plan tekniko-produktiboa egitea.
4. Antolamendu-plana egitea.
5. Forma juridiko guztien zerga-arloa ulertzea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. • Produkzio-plana prestatzea. • Enpresa baten bideragarritasun teknikoari, ekonomikoari eta finantzarioari buruzko proiektua aztertzea. • Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide-kopurua. 			x	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zerga-arloa enpresetan. 			x	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. 			x	

JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
I1. Marketin-plana aurkeztea.	1	1 o.	x		Marketin-plan baten edukia azalduko da.	I2, I3, I4 eta I5 jardueretan garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	
I2. Produktua zehaztea (ondasunak edo zerbitzuak).	1	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: xede duten merkatua eta horren posizionamendua, eskainiko dituzten produktuen eta/edo zerbitzuen gama eta euren enpresa-proiektuan eskainiko duten bereizketa eta/edo berrikuntza. Bateratze-lana egingo da.	Ikasleak eratuko duen enpresan sortu beharreko produktua (ondasunak edo zerbitzuak) identifikatu eta hauta dezan.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.	
I3. Prezio egokia zehaztea.	1	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: lehiakideekiko prezio-maila, aurreikusitako bilakaera, deskontu-politikak eta prezioen tarifa. Bateratze-lana egingo da.	Ikasleak identifika ditzan prezioak finkatzeko garaian eragina duten faktoreak.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.	
I4. Produktuen (ondasunak edo zerbitzuak) banaketa zehaztea.	1	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, merkatuaren mugaketa, banaketa-bideak eta logistika zehaztuko dituzte. Bateratze-lana egingo da.	Ikasleak eratuko duen enpresan erabili beharreko banaketa-bideak zehatu ditzan.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.	
I5. Komunikazio-politika zehaztea.	1	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: helburu duten publikoa, mezuak, erabili beharreko baliabideak eta aurrekontuak. Bateratze-lana egingo da.	Ikasleak bere proiektua argitaratzeko komunikabideak ezar ditzan.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.	
E1. Marketin-plana ebaluatzea.	1	0	x		Irakasleak gidoirako erabilitako fitxetan jasotako lana aztertu eta baloratuko du.	Ikaslea garatutako lanaren kalitateaz ohartu dadin.		
I6. Merkataritza-plana aurkeztea.	2	1 o.	x		Merkataritza-plan baten edukia azalduko da.	Hurrengo jardueran garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	

17. Merkataritza-plana zehaztea.	2	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: jarduteko lurralde-esparrua, salmenten programa, prezioak, estrategiak eta merkataritza-gastuak.	Ikasleak uler ditzan merkataritza-plan bat ezartzeko funtsezkoak diren elementuak.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.
18. Proiektu tekniko-produktiboa aurkeztea.	3	1 o.	x		Plan tekniko-produktibo baten edukia azalduko da.	Hurrengo jardueran garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.
19. Proiektu tekniko-produktiboa zehaztea.	3	2 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: produkzio- edo zerbitzugintza-prozesuaren deskribapena, aurreikusitako azpikontratazioa, kokapena, beharrezko ekipamendua eta/edo teknologia, instalazioaren diseinu eskematikoa, produkzio-ahalmena, laneko araubidea, urtarokotasuna, biltegien kudeaketa, erosketen kudeaketa, hornitzaileen hautaketa eta ingurumen-alderdiak.	Ikasleak ezagutu eta uler ditzan proiektu tekniko-produktibo bat gauzatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.
110. Antolamendu-proiektua aurkeztea.	4	1 o.	x		Antolamendu-proiektu baten edukia azalduko da.	Hurrengo jardueran garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.
111. Antolamendu-proiektua zehaztea.	4	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dituzte: enpresaren antolamendu egitura (arloka edo funtzioka), lanpostuetarako zehaztutako ezaugarriak, lanpostuetarako ezarritako beharrezko profilak eta aurreikusitako pertsonal-egitura (zuzeneko eta zeharkako eskulana, eta azpikontratazioak zehaztuta). Kontuan hartu beharko dira eskulanaren eskuragarritasuna, prestakuntza-beharrak eta laneko arriskuei buruzko politikak.	Ikasleak ezagutu eta uler ditzan eratuko duen enpresaren antolamendu-proiektua diseinatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.



I12. Enpresa-proiektuaren forma juridikoa zehaztea.	5	1 o.	x	x	Irakasleak 4. unitate didaktikoko 3. jardueran garatutako ezagutzak zabalduko ditu, fiskalitatean arreta berezia jarrita. Talde bakoitzak hartutako forma juridikoa eta horren justifikazioa bateratuko ditu.	Ikasleak eratu beharreko enpresaren forma juridikoa zehaztu dezan.	UD4 unitateko I3 jardueran garatutako eskema.
E2. Enpresaren bideragarritasun-plana ebaluatzea.	1-2-3-4-5	0	x		Irakasleak gidoian jasotako lana aztertu eta baloratuko du.	Ikaslea berak garatutako lanaren kalitateaz ohartu dadin.	
OHARRAK							

6. unitate didaktikoa: EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA		Iraupena: 8 ordu			
<p>IE3: Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.</p> <p>IE4: ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ekonomia- eta finantza-plana egitea. 2. Abiaraztea aztertzea. 3. Enpresa eratzeko dokumentuak ezagutu eta betetzea. 4. Dagozkion lege-betebeharrak eta -onurak identifikatzea. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. 			x	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantzza, besteak beste). • Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. 			x	x
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioiko eta legezko izapideak betetzea. 			x	

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
I1. Inbertsio- eta finantzaketa-plana, eta emaitzen kontua aurkeztea.	1	1 o.	x		Inbertsio- eta finantzaketa-plan baten, eta emaitzen kontuaren edukia azalduko da.	Hurrengo jardueran garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	
I2-E1. Inbertsio- eta finantzaketa-plana, eta emaitzen kontua zehaztea.	1	1 o.		x	Ikasleek dagokion fitxa garatuko dute. Bertan, inbertsio- eta finantzaketa-plana, eta emaitzen kontua zehaztuko dituzte.	Ikasleak eratu beharreko enpresaren inbertsio- eta finantzaketa-plana, eta emaitzen kontua zehaztu ditza. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Enpresa-proiektuak sortzeko gidoia.	
I3. Ogasunean enpresa bati alta eta baja emateko edo hura aldatzeko beharrezko izapideak aurkeztea.	2-3-4	1 o.	x		Irakasleak azalpen bat egingo du, izapide horien beharra bereziki azpimarratuta.	Ikasleek jarraitu beharreko izapideak ezagutu ditzaten eta prozesuaren behar soziala uler dezaten.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	
I4. Gizarte Segurantzaren alta eta baja hartzeko edo aldaketak egiteko izapideak aurkeztea.	2-3-4	1 o.	x		Irakasleak azalpen bat egingo du, izapide horien beharra bereziki azpimarratuta.	Ikasleek izena emateko aukerak eta jarraitu beharreko izapideak ezagutu ditzaten, eta prozesuaren behar soziala uler dezaten.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	
I5. Udalaren irekitze-lizentzia lortzeko beharrezko izapideak aurkeztea.	2-3-4	1 o.	x		Irakasleak azalpen bat egingo du, udal-araudiak (jarduera gogaikarriak, zaratak, etab.) eta horien beharra azpimarratuta.	Ikasleek jarraitu beharreko izapideak ezagutu ditzaten eta prozesuaren behar soziala uler dezaten.	Testu-liburua eta/edo apunteak, adibideak erabilia.	
I6-E2. Enpresa abian jartzeko beharrezko dokumentuak betetzea.	2-3	1 o.		x	Ikasleek, beharrezko dokumentuen fotokopien gainean, enpresari Ogasunean eta langileei Gizarte Segurantzaren alta emango diete, eta udalaren irekitze-lizentzia eskatuko dute.	Gizartean proiektu bat nola abiarazi modu praktikoan ezagutu dezaten. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Benetako dokumentuen fotokopiak.	



17. Laguntzak, diru-laguntzak eta zerga-pizgarriak aurkeztea.	1-4	1 o.	x		Irakasleak indarrean dauden laguntzak, diru-laguntzak eta zerga-pizgarriak azalduko ditu, Internet bidez egunean nola egon azpimarratuta.	Ikasleak ezagutu ditzan enpresa-proiektuak egiteko laguntzen arloan merkatuan dauden aukerak eta jarraitu beharreko prozedurak.	Laguntzen ezaugarriak zehaztuko dituzten apunteak.
18-E3. Laguntzen, diru-laguntzen eta zerga-pizgarrien eskabideak egitea.	1-4	1 o.		x	Internet bidez, eskatu nahi dituzten laguntzak bistaratuko dira. I6 jardueran egindako dokumentuekin eta beharrezkoak izan daitezkeen beste batzuekin, eskabideak prestatuko dira.	Ikasleek jakin dezaten laguntzak eta diru-laguntzak eskatzeko beharrezko dokumentazioa prestatzen. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Internet-konexioa, dagozkion paperak bere kabuz prestatu ahal ditzaten.
OHARRAK							

7. unitate didaktikoa: FINANTZA PLANAREN OSAGAIK

Iraupena: 5 ordu

IE4: ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. ETE baten oinarrizko administrazio- eta finantza-kudeaketa egitea.
2. Oinarrizko kontabilitate- eta zerga-betebeharrak identifikatzea.
3. Oinarrizko kontabilitate- eta zerga-dokumentuak betetzea.
4. Kontabilitate-informazioa aztertzea.

EDUKIAK					Multzoak				
					1	2	3	4	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. 							x	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. 							x x	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. 							x	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den		
			Ir.	Ik.					
I1. Kontabilitate-informazioaren garrantziari buruzko gogoeta.	1-2	30 m.	x	x	Irakasleak, benetako egoera batetik abiatuta (adibidez, hazten eta egoera konplexuagoan sartzen ari den negozio txiki bat), funtzionatu ahal izateko negozioaren datu ekonomikoak ezagutzeko beharra ikusaraziko du.	Jardueraren arrakastarako oinarrizko tresna gisa, kontabilitatearen beharrari buruz pentsamolde komuna sortzeko.	Testu-liburua eta/edo apunteak. Adibideak eta taulak.		
I2. Ikasleak urtebetean izandako diru-sarreraren eta gastuen sarrerei eta	1	1 o.		x	Irakasleak, ikasleek euren gastuetarako jasotzen duten diruaren sarrei eta irteerei	Erabaki zuzenak hartu ahal izateko, datuak ezagutu beharraz ohartarazteko.	Urteko hilekin prestatutako fitxa, lortu nahi den		

irteerei buruzko diruzaintzako aurrekontua egitea.					buruzko eguneroko egoeratik abiatuta, diruzaintzako urteko aurrekontua eginaraziko die.		informazioa jasotzeko. Lortutako informazioa baliagarria izango dugu finkatutako helburuak lantzeko. Taldean nahiz banaka eta ondoren bateratze-lana eginda gara daiteke.
I3. Diruzaintzako mugimenduei buruzko kasu praktiko bat egitea.	1	30 m.		x	Irakasleak emango duen ariketan, ETE batek urtebetean izandako diru-sarrerak eta -irteerak jasoko dira, diruzaintzako aurrekontua egin ahal izateko. Jarraian, ikasleek ikasitakoa haien negozio-proiektuari aplikatuko diote.	Diruzaintzako planak informazio ekonomiko zehatza ematen digula azaltzeko.	Prestatutako ariketa.
I4. Emaitzen kontua aztertzea.	1-4	30 m.	x		Irakasleak, benetako egoera batetik abiatuta (adibidez, negozio txiki bat), bidezko erabakiak hartu ahal izateko negozioaren emaitza ekonomikoa ezagutzeko beharra ikusaraziko du. Taldean nahiz banaka eta ondoren bateratze-lana eginda gara daiteke.	Erabaki zuzenak hartu ahal izateko, datuak ezagutu beharraz ohartarazteko.	Testu-liburua eta/edo apunteak. Adibideak eta taulak.
I5. Gastuaren, inbertsioaren eta amortizazioaren kontzeptuak azaltzea. Taulak egitea.	1	30 m.	x		Edukiak azalduko dira.	I6 eta I7 jardueretan garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Testu-liburua eta/edo apunteak. Adibideak eta taulak.
I6-E1. Negozio txiki baten emaitzen kontuari buruzko kasu praktiko bat aztertzea.	1-3-4	30 m.		x	Irakasleak emango duen ariketan, ETE batek urtebetean izandako sarrerei eta irteerei buruzko datuak jasoko dira, jardueraren mozkina edo galera aurkitu ahal izateko. Jarraian, ikasleek ikasitakoa haien negozio-proiektuari aplikatuko diote.	Ikaslea ohartu dadin, erabaki zuzenak hartu ahal izateko, datuak ezagutu behar direla. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Prestatutako ariketa.



17. ETE bat sortzeko finantzaketa-iturriak aztertzea.	1	30 m.	x	x	Irakasleak, benetako egoera batetik abiatuta (adibidez, negozio txiki bat abiarazi nahi izatea), baliabide ekonomikoak eta horiek lortzeko iturriak eskura izateko beharra ikusaraziko du.	Ikasleak finantzaketa-iturrien garrantzia uler dezan.	Testu-liburua eta/edo apunteak. Adibideak eta taulak.
18. Balantzea bat eta horren osagaiak azaltzea.	1-4	30 m.	x		Edukiak azalduko dira. Zerbait enpresaren balantzearen adibideak emango dira.	Hurrengo jardueran garatu beharreko lanari euskarri teorikoa emateko.	Eskema, testu-liburua eta/edo apunteak. Azaldutakoaren adibideak eta laburpen-taulak erabiliko dira.
19-E2. Aurreko kasu praktikoaren ondare garbia kalkulatzeko.	1-3-4	30 m.		x	Irakasleak ETE baten datuekin balantze bat egin ahal izateko ariketa emango du.	Erabaki zuzenak hartu ahal izateko, datuak ezagutu beharraz ohartarazteko. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Prestatutako ariketa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Ikaskuntzaren helburuak erdi-mailako zikloetarako eta goi-mailako zikloetarako berberak badira ere, irakasleak kontuan hartu beharko du egindako programazioa zein talderi zuzenduta dagoen, edukiak neurri batean edo bestean moldatu eta sakontzeko, eta jarduerak egokitzeko. Era berean, garrantzitsua izango da, erdi-mailako ziklo batean edo goi-mailako batean gauden kontuan izanda, hizkera teknikoagoa edo ez hain teknikoa erabiltzea. 							

8. unitate didaktikoa: BETEBEHAR ADMINISTRATIBOAK							Iraupena: 3 ordu				
<p>IE4: ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Laneko, merkataritzako eta zerga-arloko oinarrizko betebeharrak identifikatzea. Laneko, merkataritzako eta zerga-arloko oinarrizko dokumentuak betetzea. 											
EDUKIAK							Multzoak				
							1	2	3	4	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekak eta letrak, besteak beste. 									x	x
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak. 									x	x
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. 										x
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.							
11. ETE baten ohiko jarduera ekonomikoan erabiltzen diren oinarrizko dokumentuak azaltzea.	1	30 m.	x		Irakasleak, benetako egoera batetik abiatuta (adibidez, negozio txiki bat), hainbat dokumentu erabiltzeko beharra ikusaraziko du. Dokumentu batzuk barrukoak dira, eta beste batzuk nahitaezkoak, Administrazioarentzat betetzekoak.	Lanaren eta zergen arloan informazioa antolatzeke eta legezko betebeharrak betetzeko beharri buruz pentsamolde komuna sortzeko.	Eredu eta dokumentu ofizialen sorta, paper-formatuan eta sarean, ikasleak erabiltzeko.				



I2. Salerosketarekin lotutako dokumentuekin adibideak egitea.	1-2	30 m.	x	x	Irakasleak, benetako egoera batetik abiatuta, zenbait dokumentu betetzeko beharrezko datuekin ariketa bat emango du.	Ikasleak ohartu daitezten I2 jardueran aipatutako dokumentuak betetzearen garrantziaz.	Prestatutako ariketa. Dokumentu ofizialak.
I3. Ordainketarekin eta kobrantzarekin lotutako dokumentuak erabiltzea.	2	30 m.	x	x	Irakasleak merkataritza-jardueran ordaintzeko eta kobratzeko erabili ohi diren dokumentuak erakutsiko ditu.	Ordaindu eta kobratzeko erak ezagutu ditzaten.	Erabili ohi diren dokumentuak.
I4-E1. Ordenagailua erabilia, faktura-eredu bat egitea.	2	30 m.	x	x	Egingo den jarduera mota azalduko da. Ikasleak egingo du.	Ikasleek baloratu eta uler dezaten barruko dokumentu propioak sortzearen eta ordenagailua erabiltzearen garrantzia. Irakasleak baloratu eta jaso egingo du ikasleak garatutako lana.	Ordenagailua.
I5. Eskema kontzeptuala egitea erabili beharreko dokumentuekin: merkataritzakoak, lanekoak eta zerga-arlokoak.	1	30 m.	x		Dokumentuen laburpen gisa prestatutako eskema kontzeptuala azalduko da.	Ikasleak ikuspegi orokorra lor dezan merkataritzako, laneko eta zerga-arloko dokumentazioari buruz.	Testu-liburua eta/edo apunteak.
E2. Ebaluazio-proba bat egitea.		1 o.			Irakasleak proba bat planteatuko du. Bertan, 4., 5. 6., 7. eta 8. unitate didaktikoen edukiak jasoko dira.	Ikaslearen ezagutza-maila zein den jakiteko.	

OHARRAK

- Ikaskuntzaren helburuak erdi-mailako zikloetarako eta goi-mailako zikloetarako berberak badira ere, irakasleak kontuan hartu beharko du egindako programazioa zein talderi zuzenduta dagoen, edukiak neurri batean edo bestean moldatu eta sakontzeko, eta jarduerak egokitzeko. Era berean, garrantzitsua izango da, erdi-mailako ziklo batean edo goi-mailako batean gauden kontuan izanda, hizkera teknikoagoa edo ez hain teknikoa erabiltzea.

